

ORDIZIA ▶

ETBk atzeratu
egin du Oianguko
erreportajea

Oianguko parkearen inguruan erreportajea grabatu dute ETB1eko *Betizu* programako lagunek, herriko gazte batek saiora bidalitako eskutitzaren harira, Oianguko egitasmoa dela eta (golf zelaia, *paintball*-a, igerilekua...). ETBkoak Ordizian izan ziren grabatzen. Telebista kateak erreportajea herenegun botako zuela iragarri zuen arren azkenean ez zen emititu. ETBtik atzo jakinarazi zutenenez «goitik hartutako erabakia» izan da. Noiz botako duten ez du argitu kateak.

ORDIZIA ▶

Apellaniz-eneko
zozketa hilaren
2an egingo dute

Apellaniz-eneko babes ofizialeko etxeen jendaurreko zozketa datorren otsailaren 2an egingo da Majori Kiroldegian arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Ordiziako Udaletik jakinarazi duteenez. Zozketan onartutakoen behin betiko zerrenda udal txeko iragarki-taulan eta web orrian (www.ordizia.org) dago.

ORDIZIA ▶ EUSKARA

Euskal abizenak euskal grafiaz
idazteko ekimena jarri dute martxan

Udaleko Euskara Zerbitzuak abiarazi du egitasmoa Ordizian

M. DEL OLMO

Erdarazko grafiaz idatzitako euskal jatorriko abizenak euskaratzeko ekimena jarri du martxan Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak, Euskara

iragarki laburrak ▶

IKASTAROK

Informatika. Informatika ikastaro berriak: mekanografia, office... irakasle/tutorearekin ikaskide irakaskuntza zerbitzuak. Joan Iturralde, 5 Beasain. 943 16 01 20. www.ikaskide.net.

SALGAI

Karabana. 5 plazatakoa. 609 601 310.

GOIERRI ▶ EUSKARA

EHEk eskolak euskalduntzeko
kanpaina hasi du Goierrin

Eskualdean, herriz herriz, sinadura bilketa egingo dute maiatzera bitartean

MAIDER DEL OLMO

Bai Eskolak euskalduntzeari kanpaina hasi du Goierrin Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldeak. Helburua eskualdean 1.500 sinaduratik gora biltzea da. Kanpaina Euskal Herri osoan egingo da, eta maiatzera arte iraungo du; astelehenean egingo dute aurkezpen ekitaldia. Hala, herriz herri lan-taldea sortzen ari dira. Lan-taldea osatzeko herrietako euskara elkarteetara eta euskaltegietara jo dute, besteak beste. Sinadura bilketa ikastetxe, ikasle, irakasle, guraso eta norbanako euskaltzale denen artean egingo dute, eta denei egin diete deia kanpainan parte hartzeko.

Lierni Iztueta EHEko kideak azaldu duenez, «Derrigorrezko Hezkuntzatik hasi eta unibertsitatara bitartean Euskal Herriko ikasleek euskaraz ikasteko duten eskubidea aldarrikatu nahi dugu». Iztueta esanetan egungo ereduak ez dute euskalduntzen: «Kontuan hartuz euskara Euskal Herriko

berezko hizkuntza dela, eta berezko hizkuntza ezagutzea nazioartean onartutako giza eskubidea dela, derrigorrezko hezkuntzak herritarrei oinarritzko ezagutzak bermatu behar dizkie. Euskaraz ikasteko eskubidea Euskal Herri osoan bermatua izan dadila eskatzen dugu, ikas maila guztietan: bereziki derrigorrezko hezkuntzan. Euskara ezagutzeko eskubidea herritar orori bermatu behar zaio». Iztueta esanetan eskolak belaunaldi berriak euskaldundu behar ditu: «Euskal Herrian hezkuntza eta hizkuntza arloko esku-menak dituzten instituzioei eta bereziki Eusko Jaurlaritza, Nafarroako eta Frantziako Gobernuak, eskola bidez belaunaldi berrien euskalduntze osoa bermatzeko neurri zehatzak hartzea eskatzen zaie; alegia, euskararen ofizialtasuna aitortzea eta gauzatzea, egun euskalduntzea bermatzen ez duten hizkuntza ereduak politikak gainditu eta berriak definitzeko prozesuak ireki,



Urmeak eskolan. HITZA

LIERNI IZTUETA

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

«Eskolak belaunaldi berriak euskaldundu behar ditu; neurri zehatzak hartu behar dira horretarako»

ATXIKIMENDUAK ▶

Honako hauek babestu dute kanpaina.

ERAGILEAK

- ▶ Oinarriak.
- ▶ Euskal Konfederazioa.
- ▶ Sortzen Ikasbatuaz.
- ▶ LAB.
- ▶ Ikasle Abertzaleak.
- ▶ AEK.
- ▶ UEU.
- ▶ Kontseilua.
- ▶ EHE.
- ▶ EHBE.
- ▶ Topagunea.

beharrezkoa den aldaketa oso baten bidean urrats gisa. Horiekin batera, euskarazko irakaskuntzaren kontrako neurriak eten eta euskaraz ikasteko eskubidea osoki bermatzea ere exigitzen dugu, baita hizkuntza eskubideen egoerari jarraipena egiten dioten nazioarteko erakundeei, aipatutako aldarrikapenak gauzatzen laguntzea».

GOIERRI ▶ AZPIEGITURAK

AHT Gelditu Elkarlanak
batzar orokorra deitu du

Goierriko asanbladako kideek bileran parte hartuko dute gaur Alegiko udaletxean

M. DEL OLMO

AHT egitasmoaren kontrako iritzia duten talde eta erakunde guztiei dei egin diete gaur goizeko 10:00etan Alegian egingo duten batzar orokorrean parte hartzera. Udaletxean egingo dute bilera, AHT Gelditu Elkarlana taldeak deituta. Batzarrean datozen hilabetei begirako ekimenak eztaba-dutuko dituzte lan ildoak fin-katuz.

Txostenaren inguruan

Bestalde, AHTren egitasmoak Aralarren eragingo lituzkeen kalteak salatzen dituen txosten kaleratu berriaren inguruan ere hitz egingo dute



AHT Gelditukoak. M. DEL OLMO

gaurko bilkuran. Lan hori Espainiako, Nafarroako eta Eusko Jaurlaritzako erakundeei zuzendu diete, baita Aralarko Parke Naturalaren Kudeaketarako Gipuzkoako organo arduradunari ere.